

KULTURA SAILA**7215**

214/2008 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantzazioa arautzen duena.

338/2003 Dekretuak finantziario-lerro espezifikoak ezarri zituen ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko, proiektuak egoki aukeratu eta hauei lotutako arriskuak behar bezala ebaluatuta, ikus-entzunezko produkzio-modalitateen finantziarioan sortzen diren arazo larriak arintzeko eta etorkizun handiko kultur sektore berri-tzaile horretan proiektu garrantzitsuagoak burutu ahal izatea laguntzeko.

Ondoren, 107/2007 Dekretuak diru-laguntza jaso dezakeen ikus-entzunezkoen produkzioari eta onuradunei buruzko zenbait aldaketa ekarri zuen eta interes-tasarik gabeko maileguren mugak aldatu zituen.

Dekretu horretan aipatutako diru-laguntza jaso dezakeen ikus-entzunezkoen produkzioak bete beharreko zenbait kultur irizpide sartu da dekretu honen bidez. Honela, zinema-lanei eta ikus-entzunezkoen arloko bestelako produkzioei buruzko alderdi juridiko jakinei buruz, Komunikazio Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari emandako iritzietara egokitzten da ekainaren 26ko 107/2007 Dekretua (Brusela, 2001.09.26-COM (2001) 534 amaiera-). Era berean, 2008-06-17ko Europako Batzordearen erabakiak dio ekainaren 26ko 107/2007 Dekretuko laguntza-programen edukia bateragarria dela merkatu bateratuarekin, EERen Ituneko 87. artikuluko 3. idatz-zatiko d) atalean xedatutakoarekin bat. Erabaki horrek 2013ko abenduaren 31 arteko balioa du. Ondorioz, laguntzen araubidea Europako Batzordearen baimenaren menpe geratzen dela dioen bigarren xedapen gehigarria ezabatzen da.

Batetik, legez kanpoko laguntza fiskalen bat edo bateragarria ez den laguntzaren bat jaso den adierazi beharra ezartzen da.

Azkenik, beharrezko aldaketa hauek sartzea baliatuko da 21. artikulua 2. idatz-zatiko arauaren idazketa hobetzeko.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko abenduaren 16ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

DEPARTAMENTO DE CULTURA**7215**

DECRETO 214/2008, de 16 de diciembre, de modificación del Decreto por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Decreto 338/2003 introdujo unas líneas de financiación específica orientadas al fomento de la producción audiovisual que, sin menoscabo de una adecuada selección de los proyectos y de la valoración de los riesgos asociados a los mismos, coadyuvara a paliar los importantes problemas de financiación de las diversas modalidades de producción audiovisual y permitiera afrontar proyectos más ambiciosos en este sector innovador, cultural y de futuro.

Posteriormente, el Decreto 107/2007 introdujo algunas modificaciones relativas a la producción audiovisual susceptible de apoyo así como en los sujetos beneficiarios y modificó los límites de los préstamos sin interés.

Mediante el presente Decreto se ha procedido a incluir una serie de criterios culturales que las producciones audiovisuales susceptibles de apoyo por el citado Decreto deberán cumplir. De esta manera el Decreto 107/2007, de 26 de junio, se adecua a las consideraciones de la Comunicación de la Comisión al Consejo, al Parlamento Europeo, al Comité Económico y Social y al Comité de las Regiones sobre determinados aspectos jurídicos vinculados a las obras cinematográficas y a otras producciones del sector audiovisual (Bruselas, 26.09.2001-COM (2001) 534 final-). En este sentido la decisión de la Comisión Europea de 17-06-2008 declara compatible con el mercado común, con arreglo a lo dispuesto en la letra d) del apartado 3 del artículo 87 del Tratado CE, el Programa de Ayudas contenido en el Decreto 107/2007 de 26 de junio. Dicha decisión es válida hasta el 31 de diciembre de 2013. Consecuentemente, se elimina la disposición adicional segunda relativa a que el régimen de ayudas queda condicionado a que reciba la autorización por parte de la Comisión Europea.

Por un lado, se establece la obligación de declarar si se ha accedido a alguna ayuda fiscal ilegal o incompatible.

Por último, se aprovechará la inclusión de estas necesarias modificaciones para mejorar la redacción de la norma el apartado 2 del artículo 21.

En virtud de ello, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de diciembre de 2008

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantzazioa arautzen duen ekainaren 26ko 107/2007 Dekretuko 3. artikulua aldatzen da, eta honela idatzia geratzen da:

«3. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezakeen ikus-entzunezko produkzioa.

1.– Dekretu honetan arautzen diren sustapen-lerroak ikus-entzunezko lan berriek jaso ahal izango dituzte eta, horien barruan, bai atalkakoak ez diren sorkuntza-lanek bai gainerako produkzioek.

2.– Lanek kulturari buruzko eskakizun hauetatik hiru bete beharko dituzte gutxienez, eta animaziozko ikus-entzunezko lanen kasuan, gutxienez bi:

– Gidoia EAEen girotua izatea.

– Pertsonaia nagusietako batek gutxienez euskal kulturarekin edo Europakoarekin lotura izatea.

– Gidoia euskaraz idatzia izatea.

– Gidoia jatorrizko literatur lan baten moldaketa izatea.

– Ikus-entzunezko produkzioaren argumentua edozein adierazpidetako arteari edo artistari buruzkoa izatea, izan euskalduna edo Europar Batasuneko beste herrialde batekoa.

– Ikus-entzunezko produkzioaren argumentua historiako pertsonaiei edo gertaerei buruzkoa izatea.

– Ikus-entzunezko produkzioaren argumentuak politika-, gizarte- edo kultura-gaiak ukitzea.

– Ikus-entzunezko lanak EAEko ondare arkitonikoa, arkeologikoa edo naturala erabiltzea Europako kultura-ingurunea islatzeko.

3.– Lanen aurrekontuaren % 40 honako hauek kontratatzeko erabili beharko da: sortzaileak, pertsonal teknikoa eta artistikoa eta, halaber, euren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten profesional edo enpresek egindako zerbitzuak.

4.– Dekretu honen arabera atalkakoak ez diren ikus-entzunezko sorkuntza-lanak sustapen-modalitate bietara aurkez daitezke; bestelakoak, berriz, kontratuak finantzatzeko maileguetako modalitatetara baino ez.

DISPONGO:

Artículo primero.– Se modifica el artículo 3 del Decreto 107/2007, de 26 de junio, por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera:

«Artículo 3.– Producción audiovisual susceptible de apoyo.

1.– Podrán acceder a líneas de fomento previstas en este Decreto las obras audiovisuales de nueva producción y, dentro de éstas, tanto las orientadas a la creación no seriada, como el resto de producciones.

2.– Las obras deberán cumplir con al menos tres de los siguientes requisitos de contenido cultural, que en el caso de las obras audiovisuales de animación serán al menos dos:

– Que el guión esté ambientado en Euskadi.

– Que al menos uno de los personajes principales esté vinculado a la cultura vasca o europea.

– Que el guión esté escrito en euskera.

– Que el guión sea una adaptación de una obra literaria original.

– Que el argumento de la producción audiovisual trate sobre arte o un artista de cualquier disciplina, tanto sea vasco o de otro país de la Unión Europea.

– Que el argumento de la producción audiovisual trate sobre personajes o acontecimientos históricos.

– Que el argumento de la producción audiovisual aborde asuntos políticos, sociales o culturales relevantes para la sociedad vasca.

– Que la obra audiovisual utilice el patrimonio arquitectónico, arqueológico o natural de Euskadi para reflejar el contexto cultural europeo.

3.– Las obras deberán invertir un porcentaje equivalente al 40% del Presupuesto en la contratación de creativos, personal técnico, artístico y servicios prestados por profesionales o empresas con residencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– Las obras audiovisuales que, conforme a lo establecido en este Decreto, tengan la consideración de obras audiovisuales de creación no seriada, podrán acceder a ambas modalidades de fomento, en tanto que las que no ostenten tal condición, tan sólo podrán acceder a la modalidad de préstamos para la financiación de contratos.

5.– Atalkakoak ez diren ikus-entzunezko sorkuntza-lanen produktoreek finantziazio-modalitate biak erabili ahal izango dituzte batera, betiere, muga hauekin:

– Modalitate biak kontuan hartuta, ikus-entzunezko proiektu bati ezin izango zaio 600.000 euro baino gehiago esleitu.

– Ez da onartuko subjektu batek dekretu honetako modalitateen bitartez jasotako dirutik 1.500.000 euro baino gehiago itzuli gabe izatea.

6.– Modalitate biak bateragarriak dira beste edozein laguntza edo diru-laguntzarekin. Hala ere, esleitutako diru-laguntza publiko guztiek, dekretu honetan araututakoak barne, sekula ere ezingo dute gainditu laguntza jasotzen duen ikus-entzunezko produkzioaren erabateko kostuaren % 50, non eta ez den euskara hutsean gauzatzen edo ez diren produkzio esperimentalak, dokumentalak, atalkako animaziozko pilotuak eta aurrekontu txikiko produkzioak. Aipatu mugak gaindituz gero, laguntzaren zenbatekoa ahalik eta gehien murriztuko da, ezarritakoaren arabera.

7.– Dekretu honetan xedatutakoaren ondoretarako, ondokoa azaldu behar da:

a) Ikus-entzunezko produktioz hartuko dira telebista edo multimediarako ikus-entzunezko lan berriak, bai atalkako sorkuntzakoak ez izatera bidetatutakoak bai gainerako produkzioak.

b) Ikus-entzunezko lan berritza hartuko dira emisio-eskubideak eskuratzen diren urte berean edo hurrengoan ekoizten direnak.

c) Atalkakoak ez diren ikus-entzunezko sorkuntza-lantzat hartuko dira luzemetraiak, zinema eta/edo telebistan erakusteko sorkuntza-dokumentalak, atalkako edo multimediarako pilotuak eta laburmetraiak. Era berean, multzo honetan sartuko dira izaera kultural edo esperimental irmoa duten ikus-entzunezko sorkuntzak, euskarria edozein izanik ere, eta bereziki, atalkako animazioak, honetarako formalki ezarritakoaren arabera.»

Bigarren artikulua.– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantzazioa arautzen duen ekainaren 26ko 107/2007 Dekretuko 3. artikularen 1. idatz-zatia aldatzen da, eta honela idatzia geratzen da:

«1.– Dekretu honetan aurreikusitako finantza-lerroetara aurkeztu ahal izango dira euren lana ikus-entzunezko produkzioaren arloan egiten duten pertsona juridiko pribatu independentek, Europar Batasunean edo Europako Esparru

5.– Los productores de obras audiovisuales de creación no seriada podrán compatibilizar ambas modalidades de financiación, con los siguientes límites específicos:

– No cabrá reconocer cantidades por ambas modalidades a favor de un mismo proyecto audiovisual por cuantía superior a 600.000 euros.

– No cabrá que un mismo sujeto tenga pendiente de devolución cantidades reconocidas a través de las modalidades previstas en este Decreto por cuantía superior a 1.500.000 euros.

6.– Ambas modalidades serán compatibles con cualquier otra ayuda o subvención que pudieran obtener. No obstante, el conjunto de ayudas públicas concedidas, incluidas las reguladas en el presente Decreto, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que supere el 50% de los costes de la producción audiovisual beneficiaria de la ayuda, excepto en el supuesto de que se realice íntegramente en euskera o se trate de producciones experimentales, documentales, pilotos de serie de animación y producciones de bajo presupuesto. En el caso de que se sobrepasen los límites citados, se reducirá el importe de la ayuda hasta el límite máximo que corresponda.

7.– A los efectos de lo dispuesto en el presente Decreto, se entenderá por:

a) Producción audiovisual, las obras audiovisuales de nueva producción para televisión o multimedia, tanto las orientadas a la creación no seriada, como el resto de producciones.

b) Obras audiovisuales de nueva producción aquéllas que se produzcan en el mismo año en el que se adquieren los derechos de emisión o en el año siguiente.

c) Obra audiovisual de creación no seriada, las películas de largometraje, los documentales de creación, los pilotos de serie o de multimedia y los cortometrajes, destinados a su exhibición cinematográfica y/o televisiva. Igualmente se entenderán como tales, las creaciones audiovisuales de decidido carácter cultural o experimental cualquiera que sea su soporte y excepcionalmente las series de animación, en los términos que formalmente se establezca para este supuesto.»

Artículo segundo.– 1.– Se modifica el apartado 1 del artículo 3 del Decreto 107/2007, de 26 de junio, por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera:

«1.– Podrán acceder a las líneas de financiación previstas en este Decreto las personas jurídicas privadas independientes que desarrollen su actividad en el ámbito específico de la producción audiovisual, legalmente constituidas

Ekonomikoa legez eratuak, Euskal Autonomia Erkidegoan kokapen iraunkorra dutenak eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ikus-entzunezko produkzioari dagokion epigrafean alta emanda daudenak.»

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantzazioa arautzen duen ekainaren 26ko 107/2007 Dekretuko 5. artikulua 2. idatz-zatia aldatzen da, eta honela idatzia geratzen da:

«3.– Urteroko deialdietan, maileguetako modalitate bien onuradunek euren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak zein diren badakitela adierazi beharko dute, baita legez kanpoko laguntza fiskalen bat edo bateragarria ez den laguntzaren bat ez jaso izana ere, besteak beste: Araba I, II, III (CR 48/99, CR 49/99, CR 58/00); Bizkaia I, II, III (CR 52/99, CR 54/99, CR 60/00; Gipuzkoa I, II, III (CR 50/99, CR 53/99, CR 59/00)), edo laguntza horiek jaso badituzte, dagozkien interesekin itzuli dituztela.»

Hirugarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantzazioa arautzen duen ekainaren 26ko 107/2007 Dekretuko 21. artikulua 2. idatz-zatia aldatzen da, eta honela idatzia geratzen da:

«2.– Halaber, mailegua onartu zuen administrazio-organoak itzulketa atzera dezake baldin eta onuradunak eskatu eta behar bezala justifikatzen badu. Epe hori ezingo da hasieran emandako epearen erdia baino gehiago atzeratu. Kontratuak finantzatzeko maileguen modalitatean atzerapen bat onartzen denean, onuradunak atzeratutako epeari dagozkion interes gehigarriak ordaindu beharko ditu.»

Laugarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantzazioa arautzen duen ekainaren 26ko 107/2007 Dekretuko bigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela idatzia geratzen da:

«Bigarrena.– Pertsona fisiko eta juridikoek, dekretu hau dela eta, Eusko Jaurlaritzarekiko edo entitate laguntzailearekiko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko duten eskubidea bertutuko da, izan idatziz zein ahoz.»

como tales en el territorio de la Unión europea o Espacio Económico Europeo, que dispongan o instalen un establecimiento permanente en la Comunidad Autónoma de Euskadi y estén dados de alta en el correspondiente epígrafe de producción audiovisual del impuesto de actividades económicas.»

2.– Se modifica el apartado 3 del artículo 5 del Decreto 107/2007, de 26 de junio, por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera:

«3.– En las correspondientes convocatorias anuales, deberá establecerse la obligación de los beneficiarios de ambas modalidades de préstamos de encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, así como la de declarar que no han accedido a ninguna ayuda fiscal ilegal e incompatible entre las siguientes: Álava I, II, III (CR 48/99, CR 49/99, CR 58/00); Bizkaia I, II, III (CR 52/99, CR 54/99, CR 60/00; Gipuzkoa I, II, III (CR 50/99, CR 53/99, CR 59/00)), o en el caso de haber accedido a dichas ayudas las han reembolsado junto con los intereses correspondientes.»

Artículo tercero.– Se modifica el apartado 2 del artículo 21 del Decreto 107/2007, de 26 de junio, por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera:

«2.– Asimismo, previa solicitud y justificación por parte de la beneficiaria, se podrá conceder, por el órgano administrativo que reconoció los préstamos, un aplazamiento en la devolución de los mismos, siempre que las razones alegadas así lo justifiquen. El aplazamiento no podrá exceder la mitad del plazo inicialmente concedido. Cuando se conceda un aplazamiento en la modalidad de préstamos para la financiación de contratos, el beneficiario se obligará a abonar los intereses adicionales que correspondan al periodo aplazado.»

Artículo cuarto.– La disposición adicional segunda del Decreto 107/2007, de 26 de junio, por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi queda redactada como sigue:

«Segunda.– Se garantizará el derecho de las personas físicas y jurídicas a ser atendidas en euskera como en castellano, en las relaciones derivadas del presente Decreto tanto con el Gobierno Vasco como con la entidad colaboradora, ya sea por escrito como oralmente.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 16an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.